

Luis Fernandezek utzi egingo du Athletic kontratua amaitzean

Espanyolen aurka puntu baliotsuak eskura ditzakete gaur zuri-gorriek • 26-27

Euskal Departamendua

Alderdi sozialistak Frantzia mailako batzarra egingo du «eztabaida pizteko berriro»

Ehun eragile politikoek deiak erreakzio baikorrak sortu ditu, EGUNKARIAk eginiko galdeketak erakusten duenez

■ Kosovo: bake negoziazioak Parisen



YVES LOGGHE / AP

Wesley Clark generalak esan zuen erasoak «gogorrak eta eraginkorrak» izango direla

Serbia aire erasoen mehatxupear da, Milosevicen ezezkoak negoziazioak eten ondoren • 21

Iker Aranburu berriemalle berezia

Hasi da Korrika



JOXE LACALLE

■ Iruñeko Gaztelu plaza jendez gainezka zela ekin zion Joxema Leitza bertsolari eta Oinarriak taldeko kideak Korrika 11ko lehen kilometroari

■ Iruñerrian eta Baztan aldean lehendabiziko kilometroak osatu eta gauerdian Ipar Euskal Herrian sartu zen lekukoa, Izpegi gaitetik barrena

■ Euskarazko irratigintzari eta Euskal Herria irratitari omen egingo zaio gaur eta irratiek '24 ordu euskaraz' saioa eskainiko dute

■ Iñaki Lasa Nafarroako AEK-ko arduradunak ofizialtasun falta kritikatu du: «Hegoak moztu nahi dizkiote, hegaldiaren beldur direlako» • 12-15